

I'M ZORRI

Eneko Boveda, 13 urte

Durango

Abenduaren 10a zen, domeka, egun lorrin, hai-zetsu eta euritsua, ipar haize zakar batek kiribilka zerabiltzan nire auzo triste hartako hosto sikuek urratzen zuten bertako isiltasuna. Batetik ezer egiteko gogorik eduktzen ez duen egun horietakoa zen. Fededun zintzoenak meza entzutera joanak ziren, eta umeren bat edo beste, futbol zelairuntz joaten ikusi nuen. Alperrenok berriz, gehienak, ni legez, etxean geunden, sutondoan bero-bero, eguraldi eskas hartatik ihesi eta babesean.

Hantxe hasi zen dena. Etxean, bakarrik, zer egin ez nekiela eta guztiz aspertuta nengoela, langelara joan, beharrezko materiala hartu eta, oker ez bana-go, "*The Offspring*" taldearen zinta zahar bat baxu-baxu jarri ondoren, matematikako erroketak batzuk egiten hasia nintzen, $\sqrt[3]{13476,033}$..., nire burutik paperera zeozer jausi zela konturatu nintzenean. Ez nion garrantzi handirik eman, dutxatu barik nengoenez, aurreko egunean futbol entrenamenduan nire ule zapen artean geratutako hare ale bat izango zelakoan. Handik bost minutura, oster, erroketak amaituta, algebran murgilduta nengoen. Hieroglifiko itxura zuen ariketa bat neukan begien aurrean. Benetan gatxa zen, eta ez nekien nondik ebatu, horregatik, kontzentrazio egokia lortzeko

asmoz, musika kendu, esku biak matrailetan jarri, eta behera begira jarri nintzen, sudur puntarekin ia papera ikutzen nuela.

Bat-batean, liburua puntu beltzez janzten hasi zen... Gero eta puntu gehiago zeuden, bat, bi, hiru, ehun, bostehun, mila... eta gainera nire uletik jausten zirela zirudien. Ez dakit orain dela zenbat urteko kromoz, *pokemon tazoz*, pin-*ez*, amaraunez, eta makina bat hautsez eta zikinkeriaz betetako kajoi txujinetik lupa bat hartu eta puntu beltz baten gainean jarri nuen. Arreta handiz begiratu eta... hanka uletsu batzuk antzeman nituen, burua, begi gorri bi... Aaaag!!!, oihukatu nuen, *pedikulus humanus capitis* bat zen!, hau da, berba arruntagoetan, zorri iguingarri bat! Amari deitu nion. Berehala etorri eta kezkatuta, atoan dutxara joateko agindu zidan, inor kutsatu ez nezan. Gainera, orduan, nire arreba mari-sorgiña sartu zen etxean, eta era guztietakoak entzun behar izan nituen: txarri, zikin, urde, lohi, likits, ugerdo, zorritzoko eta antzekoak. Hori dena, bera ispilu aurrean jarri eta niri gertatutakoaren antzeko zerbait gertatu aurretik. Orduan bai saltsa gurean! Denok geunden zorritzosirik! Hura bai komeria!

Baina ez pentsa gu ginela herri hartako *zorritsu* bakarra.

Hurrengo goizean komunikabide guztien ahotan honen antzeko albisteak entzun eta irakur zitezkeen:

“KOTXE ISTRIPU LARRIA NAZIONAL-1 AUTOBIDEAN, AUTO-GIDARI BATEK BURUKO

AZKUREARI EUTSI EZIN, ETA BOLANTEAZ
AHAZTU OSTEAN.”

edo:

“EHIZTARI BATEK BERE BURUA HIL DU.
TXORI BAT BOTATZERA ZIHOALA, ZORRI
BATEK BURUAN KOSK EGIN ETA...”

Egun hartan jende guztia buruan hazka eta hazka zebilen. A zelako panorama! Benetan, *zoro-herri*, beno, *zorri-herri* bat zirudien hark. Eskolara joan eta maisu-maistrek, eskuak buru gainean, tximinoak ziruditen. Handiki guztiak ere euren etxetatik urten barik zuden, egunero hamar aldiz garbitu arren, ezin baitziren izurrite hartatik libratu. Eta zelan egingo du, bada, erridikulua maila horretako gizon edo emakume batek?

Hori dena ikusirik alkateak hauxe pentsatu zuen: “Herri honetatik zorriak desagertaritzen dituen pertsonari zakukada bat urre emango diot” Herritarrok horren berri izan genuenean, berehala hasi ginen zerbait prestatzen. Neuk ere banuen diru permia, baina, behin eta berriro pentsatu eta buruari mila bira eman arren, ez zitzaidan ideia mixerable bat be otu. Beraz, amore eman eta besteren baten burutazioan zain geratu besterik ezin izan nuen egi.

Alkateraren aurrean lehenengo aurkeztu zena, Mattin Ozpin, herriko sukaldari potola izan zen. Behin baino gehiagotan utziak gintuen itzelezko beruzkoagaz herri bazkarian, haren errezeta *berezi* horietako baten erruz, baina, hain egoera desatseginean, denok onartu genuen haren proposamen

xelebrea. Herritar guztioi ozpina bota zigun ulera, zorriak akabatzeko asmoz. Baina, baita zera ere! Akabatu beharrean ugaldtu egin ziren. Sukaldari gixajoa, ohi bezala, burumakur itzuli zen etxera.

Hurrena saiatu zena Marina Aspirina botikaria izan zen. Herritar guztioi zorriaurkako txanpu bat eman zigun, baina honek ere ez zuen zorriak uxa- tzerik lortu.

Horrelako milaka ahalegin egin zituzten, baina denek porrot egin zuten, noski. Bitartean, guk eskolara joan barik jarraitzen genuen. Eta alde horretatik oso pozik geunden. Baina denak izaten du bere alde txarra eta honek ere bazeukan berea: futbol edo pelota partidurik ez zegoela, edo kotxea ezin zela erabili, adibidez.

Hainbeste saiakeraren ostean, egun batean gizon berezi bat agertu zen herrian. Gizon baju eta lodikotea. Bibote haundia eta ibilkera traketsa zeukan. Alboko herriko bizargin zoroa zen, Iñaki Danaebaki. Alkatearen aurrean aurkeztu eta hauxe esan zion:

– Nik badakit zelan akabatu herri honetako zorri guztiak-.

Hasiera batean, alkateak ez zion ezer egiteko bai- menik eman, badakizu, herrien arteko “pike” hori zela medio... baina, herriak presionatuta, azkenean baiezkoa eman behar izan zion. Hau entzun eta berehala, bere asmoa inori kontatu gabe lanari ekin zion.

Hurrengo egunean denok burusoil agertu ginen, ule barik, eta uleekin batera zorriak ere

joan zitzaizkigun, jakina. Hura zen poza herri osoan! Beno, herri osoan ez, herriko ikasleok tristexego geunden, eskolara joan beharrean geunden eta; baita bertako gizon-emakumerik polit eta dotoreenak ere, euren ule luze, distiratsu eta erakargarri barik zeuden eta. Orain, hazteko, itxaron egin behar, edo burusoil, zer arraio!

Agur betiko zorriak eta zorritsuak. Beno, esan beharra dago alkateak Iñakiri adostutakoa baino are eta diru gehiago eman ziola, bere gogoz kontra egin bazuen ere.

Baina, aizu, nor izango ote zen arazo honen sortzailea? Izan ere, baten batek kutsatu beharko zituen gainerakoak. Ondo pentsatzen hasita... zenbat egun neramatzan dutxatu gabe? Bat, bi, hiru, lau, bost, hamar, hamabost, hilabete bat, bi...

HAU LOTSA!

I'm zorri? Ez, I'm txarri. Eta ez edonolako txarria gainera!